

URDAIBAI

2021
zenb. 28
.....

© MAGAZINE

itsasadarratik

ITSAS BIDAIAK

| ELKARRIZKETA. **PHOTOKA**. GERNIKAKO
ARGAZKILARITZA ELKARTEA

| MEGALITISMOA URDAIBAIN

| KURUTZIAGA JAUREGIA, ONDARERAKO
BIZITZA BARRIA

| "BACALAO A LA BUSTURIANA", MAKAILAO
ONAREN KOSKA

| MIGURAREN MAGIA

| GABONETAN BIZITAKOA

1/6

Zenbaki hau produktuaren arriskuaren adierazlea da: 1/6 zenbakiak arrisku txikiagoa adierazten du, eta 6/6 zenbakiak, berriz, handiagoa.

Kutxabank Kreditu Erakundeek Gordailuak Bermatzeko Funtzari atxikita dago. Funtz hori urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusita dago. Funtz horrek gaur egun gehienez 100.000 euro bermatzen ditu gordailugile bakoitzeko.



Doako istripu-aseguru berria. Babestu hobeto gehien maite duzuna.

Gaztedi Planarekin, 1.000 euroko gutxieneko saldoa badaukazu, doako aseguruia izango duzu⁽¹⁾, egoerarik txarrenetan haiek babestuta edukitzeko.

Orain, gainera, **doako Aseguruaren prestazioa handitzeko aukera duzu⁽²⁾, bere lehenengo inbertsio-fondoa kontratatuta⁽³⁾**

Horrela, gurasoak istripuz hil ezker, adingabeek **Gaztedi Planarengatik hilean 200 euroko errenta izango dute 18 urte bete arte eta 300 euro gehiago Inbertsio fondoarengatik.**

kutxabank

(1) Doako Aseguruak guraso baten heriotza estaliko du bera istripuz hiltzen bada. Aseguruia baliagarria izateko, Gaztedi Planak honako baldintza hauetako batzuk bete behar ditu: 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa egotea istripua gertatu aurreko egunean edo 1.000 euroko edo gehiagoko batez besteko saldoa egotea istripua gertatu aurreko sei hilabeteetan. Prestazio honen bidez, hileroko 200 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik Planaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. (2) Gurasoen edo tutoreen istripuagatik heriotza estaltzen duen Doako Aseguruia, baldin eta istripuaren aurreko egunean Inbertsio Fondo/Fondoen Zorro Delegatu bakar batean 1.000 euroko edo gehiagoko saldoa badago. Prestazio honen bidez, hileroko 300 euroko errenta ordainduko zaio onuradunari, istripua gertatu den egunetik kontratuaren titularrak 18 urte bete arte. KUTXABANK SAK, ondore hauetarako, 055-1980019878 zenbakiko istripuetarako aseguru-poliza kontratatu du MAFRE VIDA, Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros sobre la Vida Humana aseguru-etxearekin. Folleto osoa nahiz inbertsio-fondo bakoitzari buruzko inbertitzailearentzako oinarritzko datuak dakartzan dokumentua CNMVn daude. Gainera, CNMVen, Sozietate Kudeatzailean, bulegoetan eta www.kutxabank.es webgunean jaso daitezke.

INDICE

AURRERA BUSTURIALDEA-URDAIBAI 2022

Urdaibai Magazine aldizkariaren azken edizioa itxi dogu, 2021ekoa, orain dala ia bi urtetik elkarregaz bizi dogun pandemiaren seigarren olatuan bete-betean. Hasierako bildurraren eta paralisiaren egoera errazonamentuzko erreakzio kontzienteko etapa batek gainditu dau, oztopatzen gaituen nolabaiteko lozorro kolektiboa gainditzeko. Hauxe sentsazio orokorra da, eta garaitzen saiatzen gara. Beste ikuspuntu batetik, alkartasun motak bereiz badaitezke, esan leiteke pandemiak aurrera eginarazi deuskula alkartasun sozial, instituzional, enpresarial eta familiaran..., nahiz eta, begiratu ahala, agian alkarrenganako mendekotasun handiagoa dogun eremu hoietan guztietan. Inbaditzen gaituen sentsazioen aniztasunaren erdian, pozten gaitu "geure itsasontzia" mugitzen ari dala ikusteak. Covid-a geure artean instalatu zanean airean geratu ziran ideia, estrategia, proiektu eta ekintzak barrituta azaleratzen dira geure bizitzak dinamizatzeko. Perspektiba galdu bagendun, hurrengo orrialdeetan eskaintzen deuseguzen edukiek "basoa ikusten uzten deuskue". Emakume ekintzaileak aurkezten deuseguz, legatuak zaintzen dabezen emakumeak, bizikidetzat sortzaile eta barritzaileari laguntzen deusegozan artista autodidaktak, geure espiritua elikatzen daben tradizioak, geure bizi-kalitatea hobetu gura daben tokiko proiektuak. Eta geure kultura, geure ondarea eta geure nortasuna beti eszipiente gisa. AGUR 2021!



ARGITARATZAILEA

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangóiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus

tel.: 94 625 06 06

www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA DATA: 2021.12.28



- 04** ERREPORTAJEA. Itsasadarratik itsas bidaiak.
- 10** DANONARTEAN.
- 17** KOLABORAZIOA. Alberto Casina Arrasate.
- 18** VISIT URDAIBAI. Mendata.
- 20** ELKARRIZKETA. Photoka. IÑAKI UNAMUNO IRIONDO Zuzendaritza Batzordea.
- 24** LEKUKO. Megalitismoa Urdaibain.
- 26** KALERIK KALE. Kurutziaga Jauregia.
- 28** SALTSA PORRU. "Bacalao a la Busturiana".
- 30** BERDEAN. Migura.
- 32** BETI JAI. Gabonetan bitakoa..

itsasadarratik

ITSAS BIDAIAK

Mundakako itsasadarra Busturialdea-Urdaibai geografiako lerro banatzaile naturala da. Erromatarren asentamentuetatik Laidako eta Sukarrietako txaluparietara, antxinako "gasolinora" edo egungo ferryetara, itsasadarratik garraioa ezinbesteko euskarria izan da.

Abereak itsasoz garraiatzea askoz azkarragoa eta merkeagoa zan. Txahalak pasabideko ontziari lotuta joaten ziran.



Guillermo Lafuenteren "Gasolino". **Argazkia:** Julio Ruiz de Velasco.



Mundakako itsasadarreko itsas garraioaren bilakaerak kresal istorioak, gainezka egoazan txalupetako bidaiarientzat oroitzapen nostalgiko eta dibertigarriak uzten dauz, kontrabandoko testigantzak eta memoriak, bi ertzetako paisaia eta garraioa ulertzeko moduan aldaketak marrazten dabezenak.

Orain dala hiru belaunaldi eskas, errepide bidezko komunikazioak, Busturialdeko udalerrien artean, landatarrak eta biztanleria barreiatua eukezanak, urriak ziran. Ibarrangelu eta Bermeo arteko bidea egitea odisea luzea izan zeitekean. Urdaibai-ko ezker aldekoa (Mundaka, Sukarrieta) eta eskualdearen (Laida-Ibarrangelu-Kanala) arteko pasabidea edo itsasaldiak bi ertz-zen arteko distantziak murriztu beharretik sortu zan.

Gure nagusien oroimenek Leon Lafuente, Nicolas Monasterio eta Florencio Lachiondo lehen txalupariengana hurbiltzen gaitue. Haiek *"gasolinoaren zerbitzua egiten eben, neguan aldeztu aurretik abisatuta eta Sukarrietako trenagaz konbinatuta egiten zana"*, horrela jasotzen dau Cesar Estornesek bere blogean. Gogoratzen dabenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza bati esker zerbitzua hobetu ahal izan zan, Sukarrieta, Mundaka eta Laida artean bidaia gehiago eginez. Bertako ontziak antzinako "lebatz-ontziak" ziran, eta bidaiariak garraiatzeko prestazino egokiagoak gehitzen joan jakezan. Txalupari belaunaldi hartatik, Leon Lafuenteren seme Guillermo Lafuente eta bere koinatu Romualdo Monasterio ezagunak atera ziran. *"Guillermok eta Romualdok etengabeko garraioa egiten eben, udan eta neguan, ganadua be eramaten eben"*, Iciar Caballerok, gaur egungo txaluparietako batek, di-nenez. Mundakako eta Bermeoko hilt-

gietara abereak itsasoz garraiatzea askoz azkarragoa eta merkeagoa zan. Txahalak pasabideko ontziari lotu eta Txorrokopuntaraino edo Txatxarramendiraino joaten ziran uger egiten.

Gaztetan Guillermo eta Romualdoren ontzi haietan pasatzen ziranek oroitzapen ahaztezina gordetzen dabe, *"Guillermo itxura onakoa zan, filmeko galai bat bezala. Oso atsegina zan, beti uzten euskun lema eramaten, berak pasarte martxan kobratzen eban bitartean"*, eta une haietan kapitainak sentitzen ziran.

1968an erretiratu ziran txalupariak eta Urdaibaiko itsasadarren itsasaldien amaiera iritsi zala emoten eban. Baina urte batzuetako geldialdiaren ondoren, 1970ean zerbitzua berrabiarazi zan hobekuntzekaz. Jose Ramon Laskurain mundakarrak, "Motriko" hartu eban ordezkoa bere *"Ondar Alai"* ontzi "ederrean".

Berak kontatzen ebanek, bere aurrekoak txundituta geratu ziran bere ontziaren barrikuntzekaz, *"geureak motor indartsuagoa eukan eta bidaiariak martxan bajatu eta igotzen ziran"*. Baina zerbitzua udan bakarrik eskaintzen zan. *"Ez egoan orain bezainbeste auto, eta jende asko etortzen zan trenez Zornotzatik, Bilbotik... Laidako hondartzara joateko"*, gogoratu dau Iciar Caballero txalupariak. "Motriko"ren zerbitzua 40 urtez egon zan martxan. Bidaiari kopurua gehituz joan zanez, 1980an bigarren ontzi bat erosi eban, *"Aterpe Alai"*. "Ferry"z egiten ziran itsasaldien arrakasta handiko urteak izan ziran. "Motriko"ren ontziek bete-betean funtzionatzen eben udako egunetan, *"Motrikogaz topera joaten ziran, baina beste garai batzuk ziran"*. Bere bi ontziek 30 lagun baino gehiago eramane leikiezan, hondartzako osagarri guztiak gehituta: tarterak, aulkiak, eguzkitakoa... >>>



Motrikoren ferryan ontziratzea, Txatxarramendin.

BI ERTZAK LOTZEN DAUZEN ITSASALDIAREN ORAINA ETA ETORKIZUNA


Mundakako itsasadarreko garraioak itsasaldiek adina eboluzionatu dau, etengabe, bokalea, dunak, padurak, hareatzak eta ubidea barriz marraztuz. Gainbehera ekarri eban zerbitzu-aldi irregular samar baten ondoren, zainetan kresala euketan bi emakumek Urdaibaiko txalupariak izateko abenturan murgiltzea erabaki eben, itsasadarreko bidaiarien garraioa berreskuratzeko eta balioesteko. Iciar Caballero eta Cristina Krug, euren bizitza planteamendugaz % 100 bateragarria zan jarduera nitxo bat ikusi eben. Biek ala biek beren egoera pertsonala eta lan-egoera irauli behar izan ebezan, eta bat etorri ziran negozio hau "lan bat baino gehiago, bizitzeko modu bat izan eiten. Geure zerbitzua 2014an hasi zan, eta bi urte behar izan genduzan martxan jartzeko. Geure bulegoko lanak utzi, titulazioa atera eta profesionalizatu egin behar izan

gendun. Aurtengoa bederatzigarren urtea da", azaltzen dau Izkira Urdaibairen Cristina Krug-ek. Bi emakumek desagertzeko zorian egoan zerbitzua berbiztea lortu eben. Eskaera ahuldu egin zan eta beste aukera batzuk bilatu ziran, gainera orain "gehienok autoa daukogu, eta Sukarrieta, Mundaka eta inguruko jendeak ontzia dauko. Lehen, orain dagoen ontzien herena baino gutxiago egoan. Edozelan, oraindik be badago funtzionatzeko eta hondartzara igarotzeko ferrya behar dauen jendea", azaldu dau Urdaibai Boat-eko Iciar Caballerok.

Orain dala urte batzuk, bi txalupari hauek euren ibilbide nautikoak bereiztea erabaki eben. Iciarrek, "Urdaibai Boat"ekoa, eta Cristina, Izkira Urdaibaikoa, udan emoten dabe ferry zerbitzua, eta sasoz kanpo ibilaldi turistikoak eskaintzen dabez. "Neguan laguntza behar dozu, honegaz bakarrik ezin da bizi. Nik bi negozio mota daukadaz: bata, jendea hondartzara eraman eta ekartzea, eta bestea, itsasadarrean paseoak egitea, telefono-erreserbagaz. Marearen arabera Gernikaraino irits gaitekez, Gautegiz Artea-

gako marea-errotaraino, eta gidari-turiskoa neu naz. Izaro eta Gaztelugatxera be egiten dodaz txangoak", azaltzen dau Iciarrek. "Neguan beste lan bat dekot. Fakturak urtariletik abendura bitartekoak dira. Bermeoko praktikoan lan egiten dot txalupari lez", kontatzen dau Cristina.

Itsasadarraren bi aldean arteko distantziak murriztea izan da beti bidaiarien garraioaren arrazoia; kontua da ea asmo handiagoko helbururen bat planteatu daitekeen. "Funtsezkoa iruditzen jat, batez be iraunkortasunagatik eta gagozen inguru-neagatik. Ezkerraldeak garraioaren onura handia dauko (trena, autobusa...), baina eskumaldeak ez, auto erabiltzera behartuta dagoz. Kontua da azpiegiturak eta baliabideak zero dirala", aldarritzen dau Cristina Krug. "Arketaseko kanpinean edo hotelan dagoen jende askok egun euritsuetan Mundakara joaten dira erosketak egitera. Edo mendi-ibilik egitera doazenak, bizikletagaz doazenak.. beste ertzera joan gura dabenak", gehitzen dau Iciarrek.



"Izkira Urdaibai" eta "Urdaibai boat", gaur egun zerbitzua eskaintzen daben enbarkazinoek.

ITSAS-BIDAIA ERREGULATUA URTEKO 365 EGUNETAN?

Ez da oso urrutira joan behar ertz bien arteko bidaiarien garraio erregularraren adibideak ikusteko. 1993az geroztik, itsas-ontzi batek Hondarribia eta Hendaia arteko lotura azkar eta eroso eskaintzen dau, turistek eta bertako biztanleek erabiltzen dabena. Zerbitzu honek ibilgailuen zirkulazinoa arintzen dau, udan bereziki trinkoa izaten baita. Eta Urdaibain, zergaitik ez?

Mundakako itsasadarrean zehar garraio erregularraren etorkizunak, galdera bat ekartzen dau: udaz gain funtzionatuko al leuke? Masa kritiko nahikoa al dago zerbitzua gutxieneko errentagarria izan daite? Duela bederatzi urtetik hona udan ferry zerbitzua eskaintzen daben txalupariek argi ikusten dabe eskaria sortu behar dala. "Beste leku batzuetan, herrialde eskandinaviarretan adibidez, hemen baino denbora txarragoa dagoen arren eguneroko garraioa dago. Orain errepedez bes-

te aldera joan gaitekezen arren, itsasoz, zerbitzu bat emoteko beste modu bat izan leike", adierazi dau Iciarrek. "Lehen eskumaldean ez egoan garraio kolektiborik, Guillermodok eta Romualdok korronteak erabiltzen ebezana eta itsas-garraioa trenagaz bat egiten eben. Orain, udan, goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara egoten gara, baina neguan... Zerbitzua beharrezkoa da, baina aldaketa batzuk egin beharko lirateke. Ikaragarria izango zan eta uste dot beharrezkoa izango zala eskualdeko biztanleei zerbitzu bat emoteko. Apurka-apurka eskaera sortuz joango zan. Gu hasi ginanean, kostatu zan udan jendea egotea, zerbitzua hondatuta egoalako. Baina apurka beharizana sortzen joan da", azaldu dau Cristinak.

Biak bat datoz garraio erregularrak urteko 365 egunetan funtziona daian erakundeen konpromisoa beharrezkoa dala esatean. "Niri Aldunditik esaten badeuste neguan be eguneroko garraioa egiteko, beste gauzak batzuk utzi eta hartuko neuke. Posible ikusten dot, baina erakundee-

"Garraio erregularrak urteko 365 egunetan funtziona daian erakundeen konpromisoa beharrezkoa da"

Ba al zenekien?

- Idatzita dago 1500 inguruan arrau-nean egiten zala ertzen arteko itsas bidaia, korronteak eta mareak kontrolatz.
- Urdaibaiko itsasadarra erromatar inperioko Via Maris zalakoaren parte zan, kabotaje-nabigazioa, Kantauriko portuak lotzen ebezana, egungo Bizkaia, Gipuzkoa eta Akitaniako Kostaldearen artean.
- Izkira Urdaibai eta Urdaibai Boat egungo ferry zerbitzuek ekainaren 1etik irailaren 30era arte funtzionatzen dabe, egunero, 10:00etatik 20:00etara. Hondartza-sasoitik kanpo be "taxi" zerbitzua eskaintzen dabe.
- Tarifak hauek dira: 2,80€, joan-etorria 4,50€, bonu transferigarriak ateratzeko aukeragaz (bidaia 1,20€).
- Gaur egungo ferryek 12 bidaiari eraman daikenez, sakonera txikiagatik eta segurtasunagatik.



Goian, "Urdaibai boat"-eko Iciar Caballero. Behean "Izkira Urdaibai"-ko Cristina Krug. Laida.

tatik bertatik sustatu beharko >>>
zala uste dot. Orain ez dago masa kri-
tikorik, baina sor daiteke", argitu dau
Cristinak. Garraio erregularrak Mundaka,
Sukarrieta, Laida edo Arketas lotuko
leukez, bi aldeen arteko bidaiarientzako
zerbitzu gisa, bidaia turistikotik harago.
"Negan Sukarrietatik Laidara joan gura
dauen ontzi partikularren erabiltzaileak
itsasaldiari begiratu behar deutso, oinak
busti behar dauz, txintxorroa hartu behar
dau, garraio erregularra izanez gero, as-
koz erosoagoa izango zan eta kontutan
hartzekoa".

"Orain hiru urte
txalupa elektrikoko
proiektu bat aurkez-
tu neban. Laguntza
ekonomikoagaz gain,
azpiegiturako lagun-
tza eskatzeko be."

Emakume ekintzaile hauen etorkizunari
begiradak barrikuntzara jotzen dau be,
teknologia barrietara, iraunkortasunara.
"Orain dala hiru urte txalupa elektrikoko
proiektu bat aurkeztu neban. EEEn
eskutik, Bizkaiko Foru Aldundira, Eus-
ko Jauralaritzara eta Urdaibaiko Biosfera
Erreserbaren Patronatura joan nintzan, ez
bakarrik laguntza ekonomikoa eskatzeko,
baita azpiegiturretan laguntzeagatik be.
Motor elektriko bat edukitzeak ez da
nahikoa, non kargatu ez badekot. De-
nek txalotzen eben ideia, baina besterik
ez. Nik horregaz jarraitzen dot, hau da
nire helburua, gagozen tokian eskatzen
dauelako, Biosferaren Erreserba batean
gagozelako. Badakit zaila dala hastea,
baina ur garbi bihur daitekeela uste dot.
Ingurumen-inpaktu asko ken leitekez",
azaldu dau Cristinak. Berana da be erre-
serba-plataforma bat instalatzeko eki-
mena, aplikazio baten bidez erabiltza-
ileek aukeratu ahal izango dau zein egu-
netan eta ordutan hartuko dauen ferrya
udan beste ertzer pasatzeko. Itsas bi-
daiak erregulariz **UM**ko eta antolatzeko

EUSKADI ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA, BERRITZAILEA



Partekatutako konpromisoa berrikuntzan
liderrak diren eskualdeen artean kokatzeko.



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030



ARRATZUKO

UDALA

ZENTRALTASUN IRISGARRIA, FUNTZIONALA ETA ATSEGINA LOIOLARAKO

Arratzuko Udalak helburu estrategiko nagusien artean honakoak dauko: irisgarritasun digitala, bizikleta bidezko irisgarritasuna eta mugikortasun iraunkorra. Hoiek lortzera bideratu dau plangintza-eta gestino-ahalegin handia. Udalerriaren garapen iraunkorrerako egiturazko proiektu hoiek aurrera doaz. Zuntz optikoak udalerriaren lurpetik doa jada, eta Uharkatik aurrera doan bidegorri sarea Loiola auzora iritsi da, bertan Arratzuko zerbitzu nagusiak dagoz eta. Gune hau herriaren erdigune lez daukon izaeraren arabera egokitzeko hirigintzako proiektuagaz aurrera doa be. Lehenengo fasea egiten hasi dira, eta ingurunearen zati handi bat berrantolatuko da, berrogei aparkaleku inguru sortzeko ibilgailuentzako, bizikletentzako eta motorrentzako. Zoruak tratamendu desbardina izango dau, udalerriko hirigunea baita. Proiektuak kontuan hartzen dau ingurumen-arloa eta bereziki zaindu da landarediari, arboleei, zuhaixkei eta lorezaintzari dagokiena, parterre bat diseinatu eta espezie autoktonoen arbolak landatuz. Bigarren fasean, hondakinen edukiontzien eremuari eragingo deusona, erabilera anitzeko zabal-gune bat egokitzea aurreikusi da, aire zabaleko ekitaldiak antolatu ahal izateko beharrezkoak diran zerbitzuekatz eta bestelako erabilera batzuetarako, kamioien aparkaleku gisa erabili ahal izatea barne; izan be, Herriko Taberna, orain bizikletaz be irits daiteke bertara, herriko bizitza soziokulturalaren zerbitzu dinamizatzailea izateaz gain, eskualderako ostalaritza-zerbitzu garrantzitsua da.



BUSTURIKO

UDALA

KIROLDEGI IRAUNKOR ETA FUNTZIONAL TXIKIA AXPEN

Busturiako Udalak aurrera darrai Aingerubideko eskola zaharretan (Axpe) udal kiroldegi bat sortzeko prozesuan, mantentze-gimnasiako zerbitzuak beheko solairuan pilatzeari buruz erabiltzaileen aldeko iritziak ezagutu ondoren eta lehen solairuan gimnasio bat jartzeko asmoa gazteenen artean aztertu ondoren. Erabiltzaile potentzialen aurretiko jarrera ezagutzeaz gain, berokuntza-sistemarako eta gimnasiako instalazio eta aparatuen erabilera eta mantentze-lanetarako eraginkorrak diran txosten eta irtenbide teknikoetan bermatzen dau bere erabakia udalak. Garrantzitsuena eraikina klimatizatzea izango da; horretarako, aerotermia-sistema barria erabiliko da, emisiorik bakoa eta energia-gastu txikiagoa izango dauena. Instalazioaren diseinua be hobetuko da, funtzionaltasuna eta barne-erosotasuna areagotzeko. Fitness-aparatuak renting-erregimenean egongo dira, mantentzea eta barritzea ziurtatuko dauena, eta erabilera-lehentasunen arabera txertatuko dira, eskaintza busturitarren eskarira egokitu gura dalako. Instalazioetarako sarbidea txartel magnetiko indibidualeko sistema batez gain egitea aurreikusten da, eta ordutegi-askatasunaz gain, zerbitzua hobetzeko erabilera-datuak emongo deusoz udalari. Inbertsioa finantzaz haratago doa, 93.000 eurotik gorako kostuaren gainetik, beste udalerrri batzuetan horrelako instalazioetara joaten diren gazteek be Busturian aisialdirako denbora gehiago igaro eta zeharka herria dinamizatzen lagunduko dauelako honek.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

ANDRABIDEKO HARROBIAREN BERRESKURAPENA

Gautegiz Arteagako Udalak, Gautegiz Arteaga eta Ereño arteko erdibidean dagoen Andrabideko harrobia potentzial handiko eremua dala uste dau; horregaitik, titulartasun publikokoak eta erabilera publikokoak izan daitezkan falta diran lursailak erosi dauz. Esku pribatuetan geratzen ziran guztiak erosita, batzuk udalerrian bertan eta beste batzuk ondoko Ereñon, udalerriri bere ondare industrial eta historikoaren funtsezko zati bat berreskuratzen dau. Erosteke ekimena, Biosfera Erreserbaren Patronatuaren diru-laguntza daukone, espazioa berreskuratzeke eta balioesteko proiektu garrantzitsu baten lehen pausua da. Gaur egun, landaredi espontaneoak hartutako eremu degradatua da, eta Udalak funtzio anitzeko gune bihurtu gura dau, kultur jarduerak eta ekitaldiak egiteko, bai eta dinamizatzeko daukon potentzial zabalagaz bat datozen mota guztietako ekitaldiak be, ez bakarrik udalerrientzat, baita eskualde osoarentzat be. Gautegiz Arteaga tokiko garapen jasangarria bultzatzearen alde ari da lanean, eta turismo kulturalak eta naturalak berebiziko garrantzia dauke horretan. Proiektu hau etorkizuneko ildo estrategiko eta barritzailearen barruan kokatzen da, kasu honetan, Andrabideko harrobiari iraganean izan eban distira itzultzea, hemendik Ereñoko harri gorri ezaguna ateratzen zan eta. Gure mugak gainditu ebezan kareharri gorrixka, eskualdeko ondare-elementu askotan erraz aurki daitekeena, batez be tenplu erlijiosoetan.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

IRISGARRITASUNA AURRERA DOA GERNIKA-LUMON

Udalak 480.000 euro baino gehiago erabiliko dauz bi obrak egiteko, eta udarako bukatuta egotea espero da.

Irisgarritasuna hobetzeko plana aurrera doa eta gero eta leku gehiago hartzen ari da herriko kaleetan. Izan be, udal brigadak lanari ekin deutso Mestikabasoko zeharbidea osorik erabarritzeko. San Jose auzotik Josefinen komentua dagoan altueraraino doan tartean.

Lanak 120.000 eurotik gorakoak izango dira, eta bideko zintarriak eta espaloiak, errodadurako erraila eta argiztapen-sistema barrituko dira. Oinezkoentzako kale erosoagoa izango da, eta datorren udabarriaren hasierarako amaituta egongo da.

Gernika-Lumo udalerriri irisgarri bihurtzeko apustua, herrigunetik auzo periferikoenetaraino, San Juan kaletik be zabalduko da datorren urtetik aurrera. Erdialdeko bide nagusi honen urbanizazio-proiektua urte honen hasieran hasi zan, Don Tello eta Ocho de Enero arteko zatiaren eraberritzeagaz. Bigarren faseko obrek, eragina izango dabe San Juan – Don Tello bidegurutzearen eta San Juan-Erretereriako Zubia loturaren arteko sektorean. Asmoa herriari hirigintzako ordena itxura bera emotea da, bai erdiguneko kaleetan, bai auzoetan. Jardueraren aurrekontua 360.000 eurokoa da.



IBARRANGELUKO

UDALA

HERRI OSORAKO ENERGIA-HORNIDURA

Udalerriko etxebizitza guztien energia-hornidura bermatzea Ibarrangeluko Udalaren lehentasuna da, herrian bizi-kalitatea eta erosotasuna emoteko. Hau lortzeko lehen pausua aukera desbarrinak aztertu dabezen azterlan bat egitea izan da. Balorazioa egin ondoren, gasa aukeratu da, teknikoki aukerarik bideragarriena delako, ekonomikoki jasangarriena eta herritarrentzat eraginkorra. Proiektu estruktural honetarako gestioak luzeak izan dira, baina ondo gauzatu da. Proiektu honek energia-hornidura modu seguru eta errazean bermatuko dau udalerrri osoan. Nortegas enpresak bere gain hartuko dau hornidura, eta proiektu garrantzitsu hau gauzatzeko gastuetan parte hartuko dau. Beharrezko azpiegitura udalerrri osorako gas-biltegi zentral bakarra da, Ibaetako lurretan kokatua, eta hornidura-hodien instalazioa. Emaizak gaur egun gasik ez dauken etxeei egingo deutse mesede, eta, hoiien artean, batez be adinekoei, butano edo propano gasaren horniduraren eta banaketaren menpe baitagoz. Halaber, Nortegasen jabetzako gasa banaka biltegitratzen daben etxebizitza-blokeetan bizi diran mesederako izango da, biltegi nagusiagaz konektatuz. Proiektu orokorrak 550.000€-ko balioa dauko, eta hoietatik 338.948€ Udalari dagozkie. Inbertsioa ordaintzeko, hainbat laguntza eskatu jakez erakunde publikoei. Eusko Jaurlaritzak dagoeneko baieztatu dau diru-laguntza. Obraren lehen fasea esleitura dago.



KORTEZUBIKO

UDALA

HERRIKO EKONOMIA BULTZATZEKO BONUAK

Kortezubi bere landa-esentzia, garapen jasangarria eta hazkunde ekonomikorako lagungarriak diran bertako produktu eta zerbitzu bihurtu dauen udalerrria da. Animalien aterpea, artisautza enpresa bat, baserriko produktuak, nekazaritzakoak zein abeltzaintzakoak, tabernak eta jatetxeak eta taxiak dira sektore honetako parte, eta udalak bonu kanpaina baten bidez lagundu gura izan deutso. *Udazkenean be Kortezubin gasteu* da ekimenaren izena. Hiru bonu-mota jarri dira salgai, hainbat lotekaz. Lehenengoa 25€-tan erosten da, eta 40 €-ko balioa dauko. Lau erosketatan bana daiteke: 5 €-ko 2 erosketa, 10 €-ko erosketa bat eta 20 €-ko beste bat. Bigarren bonua 14 €-tan erosten da eta 20 €-ko balioa dauko, 5 €-ko bitan eta 10 €-ko batean banatuta. Hirugarren bonua 14 €-koa da, eta 20 €-tan bihurtzen da, erosketa bakar gisa. Herriko enpresa txikiari eta bizilagunei laguntzeko ekimen honetan, Udalak 6.000 euroko inbertsioa egin dau. Bonuen %75ak kortezubitarrentzat dira, eta gainerako % 25a Kortezubiko produktu eta zerbitzuez gozatu gura daben guztientzat.

Erabiltzaile bakoitzak, adinez nagusia izan behar dauenak, gehienez bi bonu/loter eros daikeez, 2022ko otsailaren 28ra arte baliozkoak izango diranak. Kortezubira hurbildu eta kalidatezko produktuak, Km0, kontsumitzeko aparteko aukera.



MENDATAKO

UDALA

ETXEBIZITZA TASATU BARRIAK ERDIGUNEAN

Mendatako Udalaren garapen-estrategiaren lehenetsuen artean, belaunaldi barriak udalerrian finkatzera eta Mendata herri bizia izaten jarraitzea bideratutako ekintzak eta proiektuak dagoz. Horretarako, bizitegirako hirigintza-proiektu garrantzitsu bat jarriko dau abian. Ekimenaren bidez, etxebizitza tasatu barriak eraikiko dira udalerriko erdigunean, Elexalde auzoan, udal-zerbitzu gehienak batzen diran lekuan. Horretarako, Udalak gaur egun Azpiegiturak (Bizkaiko Foru Aldundia) erakundearena dan lursail bat erosteko asmoa dauko. Inbertsioa 154.000€-koa da, eta 2022ko aurrekontuen kargura planteatu da. Hirigintza-proiektuak lau bloke daukoz, 23 etxebizitza guztira, sotoa, beheko solairua eta lehen solairuagaz. Etxebizitzek 50m² eta 120 m² erabilgarri arteko azalera izango dabe, berdegune eta oinezkoentzako guneekaz. Etxebizitza tasatuak diranez, gehieneko prezio mugatua edo tasatua izango dabe. Erosketa egin gura dabenek diru-sarreraren baldintza batzuk eta beste baldintza espezifiko batzuk bete beharko dabez. Ekimen hau udalaren apustua da udalerrian bizitza sustatzeko eta etxe barri baten bila dabilzanen nahiak betetzen dabezen etxebizitzak eskuragarri egiteko. Landa-ingurunea goraka doa orain, eta Mendata, paisaia ederreko udalerria, Gernika-Lumo eta Durango arteko erdibidean dago, bizitza sozial kohesionatu eta dinamikoagaz, eta bizitzeko aukera handia da.



MUNDAKAKO

UDALA

GENERO-BARDINTASUNAREN ALDE, EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO

Mundakako Udalak, joan dan urriaren 22an alkatetza aldatu ondoren, Bardintasunerako Planari heldu deutso barriro, gobernu kudeaketan lehenetsunezko zat jotzen daben proiektuari. Horretarako, eta Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza eskatu ondoren, 6800 euroko diru-laguntza jaso dau, Plan horretan jasotako ekintzetan inbertituko dana. Helburua da emakumeen ahalduntzea sustatzen daben eta pandemiaren krisiak eragindako ondorio negatiboak arintzen dabezen hainbat jarduera abian jartzea. 2018an diagnostiko bat egin zan Mundakako egoera ezagutzeko genero-bardintasunari dagokionez. Elkarriketaz egin jakezan gizarte-eragileei eta herritarrei, eta dokumentu ofizialak aztertu ziran, udalaren web-orria barne. Lan honi esker, udalerriak bardintasunaren arloan daukoan beharrak ezagutu ahal izan ziran. Hoietatik abiatuta, 2019an onartutako Bardintasunerako Planaren ildo estrategikoak planteatu ziran, eta 2022ra arte egongo dira indarrean. Honako hauek dira planaren helburu nagusiak: gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eraldatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik bako eskubideak eta bizitzak bermatzeko gizarte-antolamendua. Helburu hoiak lortzeko, planak 34 ekintza ezartzen dauz, desbardintasuna arintzeko eta desagerrarazteko. Orain, gobernu-taldeak, gizarte aske baten alde eginez, gogor ekin deutso barriro ekimen honi, emakumeekiko errespetuan eta pertsonen aukera-bardintasunean aurrera egiteko, haien generoa edozein dala be.



MURUETAKO

UDALA

HERRI-KONTSULTA HISTORIKO ETA ERABAKIGARRIA

Oran dala 35 urte, 1986ko abenduaren 21ean hain zuzen, Muruetak bere historiako une garrantzitsuenetako bat bizi izan eban herri gisa. Egun horretan herritarrek bozkatu eben, Gernika-Lumotik bereizi gura ebeela erabakiz, udalerrri independentea izateko. 114 boto-emailerren baiezkoari esker, %73,4k, 30 boto-emailerren ezetzaren aurrean, Muruetak bere nortasuna berreskuratu eban. Murueta herriak gertaera hau oroitu dau ekitaldi xume bategaz, bertan Julen Karrion Lamikiz alkatea eta Bittor Olabarriaga Arrizabalagak, garai historiko hartan alkate izan zana, egon ziran. Biak batera gogoratu dabez Muruetak udalerrri gisa bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea defendatu eban egun garrantzitsuak. 1966ko abenduaren 1ean, Murueta behartuta sartu zan Gernika-Lumon, Bizkaiko beste elizate batzuekatz gertatu zan bezala. Muruetan egoera honek 21 urtez iraun eban, Bittor Olabarriaga Arrizabalaga buru eban herriak bere nortasuna berreskuratzeko aurrerapausoa emotea erabaki eban arte. Herri-bozketa 1986ko abenduaren 21ean egin zan, hilabete batzuk geroago, 1987ko martxoaren 26an, bere independentzia gauzatu zan. Bizkaiko Bazar Nagusietan onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. Urteurreneko ekitaldian prozesu osoaren argitalpen labor bat aurkeztu da, protagonista nagusiak xehetasunez kontatua. Muruetako etxe guztiek jasoko dabe, memoria historikoaren kapitulu bat dalako, belaunaldi barrientzat garrantzitsua.



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa



URTE OSOAN BISITA GIDATUAK VISITAS GUIADAS TODO EL AÑO



AURRETIZKO ERRESERBA
RESERVA PREVIA

634 243 762
www.visiturdaibai.com



Biotalde

ELIKADURA-SEGURTASUNA
INGURUMEN-OSASUNA
MIKROBIOLOGIA BIOSANITARIOA

Gure zerbitzuak:
LABORATEGIA
FORMAKUNTZA ETA
AHOLKULARITZA

Covid-19aren aurkako
prebentzio planak



Pol.San Isidro II
Idorsolo, 15- Dpto.3.2
48.160 Derio (Bizkaia)
944 566 589
info@biotalde.com
www.biotalde.com

Ezagutza, Teknologia, Zerbitzua



Sociedad Coop. Agrícola Ganadera
Abeltzain eta Nekazal Kooperatiba Elkarteak

Bekoibarra, 25pab. 8-14 Edificio Sollube
48300 Gernika-Lumo
Tel.94 625 03 20 / Fax 94 625 68 71
kooperatibasanisidrogernika@gmail.com

www.kooperatibasanisidrogernika.com



Torrealdia

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

www.torrealdia.es • 94 627 00 36

GOURMET
URDAITEGIA



Pepi Urdaitegiak kalitatezko
hestebeteak eta delicatessen
produktu ugarieskaintzen dauz.

Gernikako plaza,7
48300 Gernika-Lumo
606 00 14 28



Urdaibai
ORAIN 2.300 URTE
HACE 2.300 AÑOS

arrolagune

Zabalik/Abierto
DOMEGA GUZTIETAN
TODOS LOS DOMINGOS
ORDUTEGIA/ HORARIO
10:00 - 14:00

Loiola Auzoa 4,
48383 Arratzu (Bizkaia)
Tel.: 634 243 762
arrolagune@visiturdaibai.com
www.visiturdaibai.com

Visit
Urdaibai

A Bizkaia



EUSKAL SOUVENIRS



Andra Mari kalea, z/g
48300 Gernika-Lumo (Bizkaia)
94 625 19 30
www.euskalsouvenirs.com



@euskalsouvenirs



ARRIBALTZA
KAFETEGIA

ARRIZA
KAFETEGIA

Barrenkalea, 6
946 466 084

Artekalea
944 650 698



48300 Gernika-Lumo

jasangarritasunagaz bati!

Busturialdeko
mankomunitatea

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org
94 625 68 84 / 94 625 47 22



eskatu eskaini EUSKARAZ



BETIKOA, GERTUKOA.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

HERRIKO LIBURU-DENDA, garaietara egokitutako *hurbiltasuna*

ALBERTO CASINA ARRASATE
"Luma" Liburu-denda, Bermeo

Atzo, sasoi hauetan Bilbon paseatzen ari nintzela, zalaparta horregaz eta hiria argitzen eben denda askoren artean, zenbait liburu-denda espezializaturen aurretik igaro nintzan. Lehenik, didaktika bat eta, geroago, nautikako liburu-denda bat. Eta pentsatu neban zein erromantikoa zan oraindik jendeak apustu hori egitea. Espezializazioa gauza korapilatsua bada hiri batean, ezinezko bihurtzen da herri txiki batean...

Proiektuaren hasieratik konturatzen zara zeure ikuspegia handitu beharko dozula aurrera egin gura badozu. Denbora luzez musika (CD) eta zinema (DVD) laguntza ona izan ziran. Oraindik be mantentzen dira papergintza, jolas didaktikoak eta opari-artikulua, negozioaren euskarri gisa.

Zorionez, Amazonek asmatu ebana mundu guztiak kopiatu dau, eta banaketa eta logistika 24H une batean dagoz, guztion onurarako, handiak eta txikientzako.

Online salmenta gero eta ageriago dago, eta handien webguneetako deskontuen ondorioz, bidean negozioak gutxitzen doaz, batzuetan ehun urtetik gorakoak.

Teknologia barrietara egokitzen ari gara, komunikatzeko modu barrietara. Ahaztu egin jaku dauela gutxi arte liburu-denda txiki bat eta beste denda txiki asko topaguneak eta bilguneak zirala, elkarri begietara begira egiten izaten ziran harremanak.

Hogeita hamar urtez "herriko liburu-denda" batean lanean aritu ondoren, oraindik plazera dot aurrez aurre aritzeko, liburu bat gomendatzeko, edo hurbiltasunetik eta berotasunetik bezeroengandik liburu baten gomendioa jasotzeko.

Dana ez dago galduta. ■■■





San Miguel eleiza

Osotasun sentsazio batek hartuko jatzu Mendatara iristean, Urdaibaiko herririk garaienetako bat eta natura-turismoa, mendi-ibiliak eta bizikleta maite dabezenentzako paradisua. Adeitasuna da mendatarren ezaugarri nagusia. Bertako auzo idilikoen eta paisaia ederren xarmak, Done Jakue Bideko erromes askoren bidea laguntzen dabe eta bisita lasaia egitea justifikatzen dabe.


Mendata, "mendatea" berbatik dator, mendi arteko pasabidea. Oiz mendiaren inguruetan dago, paisaia zabalean. **Bizkaiko Balkoia** Urdaibaiko mendiarteko panoramika onenetakoa oparitzen deusku. Iraganen sorginen topagune izan omen zan, eta hortik Andra Mariren irudiaren mosaikoa, babes espiritual gisa.

Elexalde, gunen nagusia da, Albiz, Marmiz eta Olabe dira bertako auzo nagusiak. Lamikiz, Mendaturi edo Zarrabenta bezalako auzo xumeagoek herriaren historiaren zati garrantzitsu bat gordetzen dabe.

Elexalde zerbitzu nagusiak batzen dauz: udaletxea, kultur etxea, frontoi estalia, probalekua, bere ohiko asto-proben lekuko, Erregenetako Asto probak, aire zabaleko umeentzako jolas-gune bikaina, aterpetxea, Donejakue bideko erromesek asko erabiltzen dabena, Artape taberna, jatetxe ederragaz, eta **San Migel eleiza**

MEND

altua izatez



ATA.



Albiz jauregia, XVII.mendean eraikia.



Olazarra burdinola

monumentala (X.mendekoa). Elizpean dago oraindik *Txopitel harria*, harrizko mahaia, landa-tenpluetan ohikoa, antxinan elizateetako bizilagunak haren inguruan elkartzen ziran herriko erabakiak hartzeko.

Golako ibaiaren bideari jarraituaz (PR-BI 167), herri honen iragan historiko aberatsa ikusiko dogu. **Montalban Dorretxea** (XVI. mendea), Montolan izenez be ezaguna, Arteagatarren leinukoa da, oinaldeko lurrak menderatzen dauz eta Gernika-Lumoraiko Erdi Aroko ibilbide zahararren jagole estrategikoa izan zan. Bere berezitasuna Euskadiko dorre pentagonal bakarra izatea da. Landarediaren artean, presa eta **Olazarrako burdinola** ikus daitezke. Burdinola handi bat izan zan. Euskal burdinaren krisiagaz errota bihurtu zan, 1975era arte aktiboa egon zan. Jabetza pribatukoa da eta, beraz, ezin da esparruratu sartu.

Mendatako landatartasunak Albiz elizatean, Bizkaiko kofradiarik zaharrenean, bere iragan dotoreagaz bat egiten dau. Bertan, Albizeko lehen kondesak, Jesusa Allendesalazar y Muñoz de Salazar andreak, XVIII. mendean, **Albiz jauregia** eraikitzeko agindu eban, inguruneari dotoretasuna emoten deutson udako etxe monumentala.

Albizek ondare arkitektonikoaren beste adierazgarri interesgarri batzuk eskaintzen deutsoz bisitariari, hala nola **Andra Maria Madaleneke eliza** (XVI. mendea), elizateko *Txopitel harria* elizpean be gordetzen dauena. Erlojua, inguruko zaharrena da (1828). Albiz auzoan, Urdaibain oraindik kontserbatzen dan latsagi bakanetako bat be aurki daikegu.

Mendatako ibilbidean ezin dogu Lamikiz herrigune xumea bisitatu barik utzi. Bertan, **San Juan eta San Lorenzo ermitaren** lehio prerromanikoa (XI-XI.mendekoa) mi- retsi ahal dogu.

Mendatak bere gastronomia aberats eta askotarikoagaz harritzen dau, eta kultura eta festa eskaintza desbardinagaz. Bere dinamismo soziokulturala sakonki lotuta dago bere landa-tradiziogaz eta bere ingurune menditsuagaz. BTT zentro bat izan eban Euskadiko lehen herria izan zan, baina gaur egun ez dago martxan.

Data aukeratu ahal badozu, hurbildu zaitez irailean, orduan antolatzen dabezelako beren ohiko hegazti-azoka, Mendi Martxa ospetsua eta herriko San Migel jaiak. **UM**



GERNIKAKO ARGAZKILARITZA ELKARTEA

*“Nonori argazkia
gustatzen bajako,
elkartekoa izatea bide
egokia da ikasi
ahal izateko”*

Photoka, Gernikako Argazkilaritza Elkartea elkarte gaztea da, eta merezitako ospea lortu dau argazkilaritza zaleen eta publikoaren artean. Taldeko ibilbideaz aritu gara Iñaki Unamuno Iriondo elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideagaz.



IÑAKI UNAMUNO IRIONDO Zuzendaritza Batzordea

Nor dago Photoka Argazki Elkarteak ob-jektiboaren atzean?

Elkarteko kideok gagoz, bera baita tal-deak daukon kapitalik garrantzitsuenak. Oso anitzak gara gustuei dagokienez, egiten dogun argazki-estiloari dagokio-nez. Elkarrengandik ikasten dogu. Hauxe da elkartearen potentzialik handiena, ak-tiborik handiena. 37 gara, eta talde guz-tietan bezala, jende aktiboagoa eta jende ez hain aktiboa dago. Taldearen barruan, 10-12 pertsonak kontzentratzen eta gara-tzen dabe jarduera handiena.

Zelan sortu zan Gernika-Lumon argaz-ki-elkarte bat sortzeko ideia?

Ruben Petralanda, "Txuma" Jose Ramon Erezuma, Jesus Carmona eta ni, Iñaki Unamuno, lauok Gernikakoak gara, be-tidanik ezagutzen genduan elkar eta ar-gazkigintzarekiko zaletasuna partekatzen genduan. Jendeak ezagutzen eban irtee-rak antolatzen genduzala eta batzuek apuntatu egiten ziran, horrek bidea emon euskun 2010ean elkartea sortzeko.

Zelan funtzionatzen dau elkarteak?

Urteko Batzar Nagusia egiten dogu. Ber-tan urtearen laburpena egin eta hurren-go urtean egin daikeguna aztertzen dogu. Urtean zehar, Zuzendaritza Batzordearen beste bilera batzuk egiten doguz, ez hain formalak, gai zehatzak aztertzeko. Pho-tokako kide bazara, gure bileretan jardue-rak eta tailerrak proposa daikezuz.

Geure gabezia nagusia da ez dogula loka-lik elkartzeko edo elkartearen materiala gordetzeko. Gu bezala Euskal Herriko Argazkilari Elkartearen Elkartearen dagozen beste argazki-talde federatu batzuekatz batzen garenean, ez dabe sinisten lokalik ez dogunik. Udalari lokal txiki bat eskatu

deutsagu, materiala gordetzeko artxibo txiki bateko mahai bat baino ez dogu be-har. Tailerrak emoteko areto bat eskatzen deutsagu beti udalari. Une honetan, elkar-tearen egoitza bakoitzaren etxea da.

Materiala be geure kontura joaten da, batzuetan, erakusketa egin gura dauenak bere argazkiaren inprimaketa ordaindu behar dau. Egia da, halaber, udalak urtero emoten deuskula laguntza bat lehiaketa-rako eta beste laguntza bat elkartearen jarduera orokorretarako.

Photokako kide guztiak Gernika-Lu-mokoak zarie?

Ez da beharrezko baldintza. 37 kide gara, gehienak Gernika-Lumokoak edo in-gurukoak, Laudioakoak, Elizondokoak, Bil-bokoak eta Bermeokoak be badagoz. Kide izateko baldintza argazkigintza gustatzea da. Ez dago argazkilaritza aditua izan be-harrik. Nonori argazkigintza gustatzen ba-jako, elkartekoa izatea bide egokia da ikasi ahal izateko. Tailerretan ez ezik, kideen ar-tean be asko ikasten da.

Askotan, argazkilaria izatea bakarkako lan edo zaletasun gisa planteatzen da. Zelan emoten da kolektibo bateko kide izateko pausua?

Argazkiak talde handi batean ateratzea ez da egokia. Normalean bakarrik joa-ten zara, edo talde txiki batean, eta horrek aukera emoten dau galdetu ahal izateko, ikasteko... edota gune barriak ezagutzeko be bai.

Elkarteko 37 kideetatik, zein da gazteen eta emakumeen ehunekoa?

Elkartean sartu diran azkenak gazteak dira, eta gazteen kopurua %30ean egongo da. Gazte gehiago eta emakume gehiago egotea gustatuko litzakigu. Elizondokoa dan neska bakarra dago. Gazte gehiago erakartzeko, duela 2 edo 3 urteko Batzar

Nagusian zero kuota ezarri genduan elkartearen sartu gura ziran gazteentzat, eta kuota erdia 31 urtetik beherakoentzat. Gazteak animatzeko oso proiektu polita izan genduan, neska-mutilentzako ikas-taro bat San Fidel ikastolan. Dana antola-tuta geunken, baina pandemiak harrapatu ginduan eta bertan behera utzi behar izan genduan. Barriz hastea da asmoa. Telefo-no mugikorrekiko argazkiei buruzko ikasta-roa zan. Lehiaketa txiki bat egin genduan be 16 urteko gazteentzat, eta argazkia mugikorrak atara behar zan.

Zer behar da Photokako kide izatera jen-de gehiago animatzeko?

Jendeak beldurra galtzea...Batzuek esan deuskue beldur direla, sartzeko maila na-hikoa ez izatearen beldur. Ez da gutxiene-ko argazki-mailarik behar elkarteko kide izateko. Maila baxuagaz bazatoz, baina zaletasuna badozu eta argazkilaritza gus-tatzen bajatzu, ikasiko dozu, eta ikasten ez badozu be ez da ezer gertatzen. Hau zaletasun bat da, ez da azterketarik egiten Photokan danok gara autodidaktak. Ez da kamera handi bat eduki behar. Gogoia eta zaletasuna besterik ez da behar. Gaine-rako guztia ikas daiteke.

Zelan egokitu zarie argazkigintzaren bi-lakaerara?

Oso denbora gutxian asko aldatu da ar-gazkigintza. Guk elkartea sortu gendua-nean, Photoka osatu genduan lauok argazki analogikoagaz funtzionatzen gen-duan, karretegaz. Hau duela 11 urte izan zan. Izan be, argazkilaritza digitalera abia-tu zan lehena ni izan nintzan, eta esaten eustazan hori ez zala argazkilaritza, alde ilunera pasatu nintzala. Orain etxean gor-deta daukagu kamera analogikoa. Digi-talak be asko aurreratu dau oso denbora gutxian. Orain etengabe ari dira kamerak barritzen eta aukera gehiago dozuz, >>>

E
EGUREN



OPTIKA



ENTZUMEN ZENTROA

GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51

MUNGIA
Aita Elorriaga, 20
946156636



AUZOKOA
TABERNA

Ostadar
zaporetsua

Pablo Picasso Kalea, 9
Gernika-Lumo
Tel. 94 625 16 66





Photokako kideak argazki irteera batean.

baina berehala zaharkituta geratzen dira. Eguneratuta egoten saiatzen gara, baina ez da material merkea.

Zer eskaintzen dau Photokak trebakuntzaren arloan?

Azaroan argazkilaritzako hamabostaldia antolatzen dogu, tailer eta erakusketekaz, Gernikako ostalaritza lokaletan, espazio publikoetan eta Photoka lehiaketako sarietaz. Elkarteari ikusgarritasun handiago emateko, ospe handiko argazkilariak etortzen saiatzen gara beti, eta horrek kanpoko jende asko ekarri deusku beti. Argazkigintzako sari nazionalak etorri dira geure tailerrak emotera. Tailerrak interesa dauken guztientzat zabalik dagoz. Elkarteko kideentzat formatu txikiagoko beste tailer batzuk antolatzen doguz, baina ez gara inori ateak zarratzekoak, eta alkar-

kide ez dan edonork Photokako kide batek gonbidatuta etorri gura badau, ez dago arazorik. Urdaibain eta kanpoan be irteerak egiten doguz, eta Ekoetxeagaz elkarlanean aritzen gara padurarako argazki-irteera batean, bere jarduera-programaren barruan.

Photoka ezaguna da bere lehiaketa ospetsuagatik, aurton 6. edizioa bete dau.

Ze suposatuta dau lehiaketa honek?

Tailerrak eta lehiaketa antolatzearen ondorioz hasi ginar garrantzi gehiago hartzen alkarre lez. Horrek ikusgarritasuna emon euskun Gernikan eta eskualdean, eta jende gehiago hurbiltzen hasi zan, eta kide kopurua handitu egin dogu. Urteek aurrera egin ahala, eskualdeko, lurraldeko eta kanpoko argazkilariek ezagutzen dabe Photoka lehiaketa, eta aurton aurreko ur-

teetan baino parte-hartze txikiagoa izan dogun arren, lehiaketa guztietan izan dan bezala, epaileek nabarmendu dabe aurkeztutako argazkien maila oso altua izan dala, harritu egin deuseela. Datorren urterako Espainiako Argazkilaritza Konfederazioaren (CEF) babesu lortu gura dogu. Haren babesagaz, zabalkundea handiagoa izango da.

Zelan baloratzen dira argazkiak Photoka lehiaketan?

Epaimahaia independentea da, Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak egiaztatua. Egiaztatutako epaimahaiak dira, Gernikagaz zerikusirik ez daukeenak. Geure lehiaketa hiru kategoriatan planteatzen da: gai libre eta teknika libre, gai libre eta teknika baldintzatua, eta Urdaibai-teknika baldintzatua. Azken bietan, ia ezin da editatu, oinarritzko kontzeptuak bakarrik. Lehiaketa estatu osoari irekita dago. Urdaibairen kategoria ez da hementxo saritzeko modukoa, baina gutxienezko abantaila dogu. Kokapenak ezagutzeagatik, denboragatik... Izan be, kategoria honetan eskualdeko saridun gehiago dagoz. Aurkeztutako argazki guztien artean argazki onenaren saria be badago. Aurton Jordi Cohen kataluniarrak irabazi dau Photoka saria. Garaikurra Ube artistak sortutako eskultura da, eta urtero egiten deusku, guri ezer kobratu barik. Igaz Urbano Ruizek irabazi eban eta aurrekoan Aitor Arana, elkarteko kidea, Gernikakoa da eta urte berean Argizaiola saria irabazi eban, Euskadi mailan. Ospe handiko saria da, parte hartzeko erkidegoko beste lehiaketaren batean saritua egon behar izan dozulako. Geure lehiaketan sarituak Argizaiolara aurkez daitezke.



Zer behar da argazki on bat egiteko?

Garrantzitsuen argazkia "ikustea" da, buruan euki eta egitea da. Argazkia mugikor batez egin daiteke eta argazki ona bat izan. Argazkian agertzea gura dozun hori bilatu behar da eta modu pertsonalean kokatu, hor dago argazkiaren balioa. Mila euro askoko kamara batez aterata badago edo kamaratxo batez aterata badago, hori bigarren mailakoa da.

Argazkigintzan be barrikuntzak egitea eta harritu behar da. Hauxe al da Lehenengo Photoka Ligaren ideia?

Photoka Liga elkarteko kideak bizkortzeko da. Barne-liga bat egitea erabaki genduan, pandemiagaz geldi egon ez gintezan. Hiler argazkiak aurkeztu behar doguz eta guk geuk bozkatzan doguz, egilea zein dan jakin barik. Argazkia aurkeztan dauenak botoa emoteko eskubidea dauko, ez bere argazkiarena, noski. Geure arteko lehiaketa sozial txiki bat da. Hau izan da lehen urtea eta jarraitzeko asmoa dogu.

Eta Euskal Liga?

Igaz eta aurtun Euskadiko Argazkilari Federazioak elkarte guztiek parte hartzeko liga bat antolatu dau. Elkarte bakoitza talde bat da. Photokako kide guztiok argazkiak aurkez daitekegu. Estatu mailan ospe handia daukon kanpoko epaimahai bat dago. Bi urte hauetan hirugarrenak gertatu gara. Euskadi eta Nafarroa mailako liga dala eta elkarte txikia garela kontuan hartuta, meritua handia da.

Jendeak zuon lana baloratzen dauela sentitzen dozue?

Baietz uste dot. Alde horretatik jauzi kualitatibo txiki bat dago. Pandemiagatik espazio itxietan erakusterik ez egoanean, hauteskunde autonomikoetako hauteskunde-panelak jarrita egozala aprobe txatuz, udalari baimena eskatu geuntson



Iñaki Unamuno, lehena eskumatik, alkarteko beste kideekaz batera. Erdian Aitor Arana Argizaiola sariagaz.

"Tailerrak eta lehiaketa antolatzearen ondorioz hasi ginan garrantzi gehiago hartzen alkarte lez. Horrek ikusgarritasuna emon euskun."

erakusketa-gune lez erabiltzeko. Baietz esan euskuen eta formatu handiko argazkiak jarri genduzan. Arrakasta handia izan eban. Kaleko jendeak egiten dogun lana ezagutzeko modu bat izan zan. Kanpoan erakutsi genduan lehen aldia izan zan. **UM**

**LOGÍSTICA**

GARRAIOA, BILTEGIRATZE, BANAKETA...



**Txaporta industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)**

**Tel. 94 625 03 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es**



Arrien Optika 

Urkieta k. 10

Tel./Fax: 946 25 63 63

Email: arrienoptika@yahoo.es

MEGALITISMOA URDAIBAIN.

beste munduko
talaiak

Urdaibai bere paisaien kalidade, aniztasun eta edertasunagatik ezagutzen eta hautematen dan lurraldea da. Eskualdeko ikusmen-osagai garrantzitsu hau naturak haran, mendi-tontor, zelai eta paduren multzo paregabe honi emon deutson aldakortasunetik sortzen dan ezaugarria da; izan be, barnealdeko eta kostaldeko espazioen segida batean, distantzia handi barik, habitat gisa gune ezin hobea dan eta izan dan lurraldea osatzen dabe. Ahalmen honeek giza talde desbardiak erakarri eta finkatu dabez historian zehar, eta gizarte hoiek euren arrastoa utzi dabe tokian bertan eta izateko eta egiteko moduetan.

Megalitismoak mendi-mazelen, tontor eta talaien gainean utzi dauz aztarnak, taldekatuta edo isolatuta, hildakoak ohoratzeko "hautatutako" lekuetan.

Denboran zehar galtzen diran eta misterioz beteta dagozela uste doguzen kulturen arrastoei jarraitzea kultur kezka da, eta horretarako Urdaibai eszenatoki bikaina da. Hemen historiaurrearen, Erromaren, Erdi Aroaren edo Errenazimenduarien aztarnak euren erreferente geografikoak eta euren kontakizunak dauke. Era berean, distantzia eta denbora gutxian, gizadiaren ibilera askoren gainean paseatu ahal izango dogu, eta bere asentamentuak, nekropoliak, gotorlekuak eta lanerako espazioak izan ziranak zeharkatu. Busturialdeko Neolito eta Kalkolitoko gertaera historikoak ezagutarazteko hari eroaleetako bat megalitismoa da.

Megalitismoak hainbat adierazpen arkitektoniko batzen dauz, batez be hilobietakoak eta monumentalak; hoiien jatorria Europako eremu atlantikoan dago, K.a. V. milurtekoaren erdialdean. Harritzko lehen eraikuntza monumental hauek Neolito garaian sortu eta eboluzionatu eben nekazarien gizarteei (nekazariak eta abeltzainak) lotuta dagoz.

Euskal Herrian, mota megalitiko bereizgarrienak hauek dira:

•**TRIKUHARRIAK.** Ehorzketa kolektiboak egiteko erabiltzen ziran egiturak dira. Barruan, hilobi-ganbera bat dago, normalean angeluzuzena edo poligonal, eta lauza bertikal batzuek azalera dago, lauza horizontal batez edo gehiagoz estalita. Ganbera harri eta/edo lur pilaketa batek babesten dau, hilobiari monumentaltasun handiagoa emoten deutsona. Trikuharriak leku garrantzitsuetan kokatzen dira, urrutitik ikusi ahal izateko.

•**TUMULUAK.** Tumulu gisa kalifikatu dira hilobi-ganberaren ebidentzia ezagunik ez daukeen egiturak (induskatu aurretik).

•**MENHIRRAK.** Harlauzak dira (normalean luzangak), bertikalak eraikiak eta lurrean sartuak, lurralde eta sinbolo-funtzioa dauke, ez hileta-funtzioa.

Megalitismoak Urdaibaiko mendi-mazelen, tontorren eta talaien gainean utzi dauz aztarnak, kasu batzuetan taldekatuta eta beste batzuetan isolatuta, eta

euren interes historikoari eta ondareari gehitzen deutse beren inguruneen apartekotasuna, oso atmosfera bereziz blaituta dagozelako beti; izan be, aukeratutako lekuak dira hauek, euren lurraldea ondo ezagutzen eben pertsonek aukeratutakoak, hildakoen gorpuzkiak gorde eta ohoratzeko.

Antxinako ondare hau ezagutu eta gozatzeko, gomendagarria da trikuharri, tumulu eta menhirren ingurutik doazen eta kultura-ibilbide aktibo eta anitza sortzen daben mendi-ibilbideetako bat jarraitzea.

Katillotxuko mendilerroaren gainean arkeologia multzo bat dago, bost trikuharri eta aire zabaleko bi kokalekuz osatua. Honen kronologia Neolitiko aurreratua-Kalkolitikoa da (5500-3800 B.P.). AGIRI Arkeologia Kultura Elkarteko ki-deek 1989an aurkitu ebezan Katillotxu I, Katillotxu II eta Pakoteneko trikuharriak, Sollubeko eremuko prospekzio-programa baten barruan. Katillotxuko ibilbide megalitikoak Sukarrieta eta Mundakatik doan ibilbide batean jositzen dauz monumentu hauek, itsasadarraren estuarioaren gaineko ikuspegi apartagaz.

Sollubeko Iturria eta Añabusti trikuharriak eta Urkidi tumuluak, Bermeoko Sollube magaletan, Sollubeko Estazio Megalitikoa osatzen dabe, itsasadarraren ezker aldean.

Eskuinaldean, Gabika auzoan, Ereñon, Munjoruriko trikuharria ikus daiteke, Katillotxukoak bezala gune pribilegiatuan eraikia, Galarrei (600 m) eta Buzterrigana mendien (564 m) artean, Elexalde auzotik Nabarnizeraino hedatzen dan mendilerroan.

Lurraldeagaz estuki lotuta dagoen ondare honek, ziurren beren eraiki ebene bezala, gaur egungo gizartearen jatorrietara hurbiltzen gaitu, eta, monumentu hoiek aurkitu eta ikertu dabezen adituen ekimenari eta lan onari esker, duela 5.000 urte baino gehiago geure lurraldean bizi izan ziran giza taldeak zelakoak ziran eta zelan bizi ziran erakusten deusku. **UM**

Kurutziaga Jauregia, ondarerako bizitza barria

*Kurutziaga Jauregia,
Simitur, Semiturriaga
edo Kortsarioen
Dorrea izenez be-
ezaguna izan da,
Mundakako
historiari lotuta.*

Urdaibaiko estuarioko bokalean, itsasadarra itsasertz bihurtzen dan lekuan, Mundakako hiri-profila agertzen da Kantauri itsasora. Bere fisionomia bereziak, elkartua, oreka sotil batean, itsasoa bistatik ez galtzeko, bere inguruan mantentzeko eta eguraldi txarraren aurrean babesa eta gordelekua bilatzeko, bizimodua ozeanoaren aurkako etengabeko apustuan irabazten zan garaietako indarra eta edertasun zorrotza transmititzen dauz.





Kurutziaga Jauregia gaur egun, Hotelan birmoldatua

Antxinako arrantza-le-etxeen, itsasgizon, merkatarien eta ontzi-jaubeen etxebizitzak moltso erakargarriak barneratuta, Kurutziaga Jauregiak arkitektura-multzo berezi honi bere ezauzgarri neoklasiko irmoen sendotasuna eskaintzen deutso. Jauregia Simitur, Semiturriaga edo Kortsarioen Dorrea izenez ere ezaguna izan da historian zehar, bere jabeek, arkitektura-aldaketekoei eta Mundakako historiari lotuta. Jauregi honen gorabeherak historiagaz batera doaz. Simitur Jauregia izen bereko familiaren bizilekua izan zan XVII. mendera arte. XVIII. mendean Arteagatarren familiako kideek gaur egungo estiloan berreraiki ebe. Jauregiak bere etorkizuna igartzen dauela emoten dau, benta baten bihurtuz. Kurutziagak behin betiko geratu zan Mundakako etorkizunagaz lotuta, hotel gisa erabarrituta, 23 logelakaz, garai berrien eta ekonomia barrietara egokituaz, inguruan turismoa erreferentea izan da.

Eraikin berezi honen fatxadak bere historiari buruz berba egiten dau, goikaldean lerrokatzen diran hainbat margolanen bidez, honako motiboekaz osatuta: Simitur familiaren armaria, teilatu-hegalaren azpian margotua; margotutako etxe batzuk, «Año de» berben gainean; eta, hauen gainean, zirkulu bat, oinazpikodun gurutze batez, eta inskripzio hauek: «IHS-Ma-JOAQUIN I ANA, I. eta urtea "1783".

Kurutziaga Jauregiaren parean, 1611an datatutako kalbariozko kurutzea nabarmentzen da, alde batean kurutze bat duela, eta atzealdean Ama Birjina, Jesus umea besoetan duela, guztia zutabe toskanar batean oinarrituta, oinean inskripzio hau daukela: *"Esta obra hizo hazer Rodrigo Abad de Mendecano, vos que sois lector rogad al soberano año 1611"*. **UM**



"Bacalao a la Busturiana",

MAKILAO ONAREN KOSKA

Pil-pilean, bizkaitar erara... makilaoak lotura estua izan dau beti euskal sukaldaritzagaz. Eta "euskal zigiluaz" ari garenean, Marcelina Elesgaray busturiarraren lana aitortu beharra dago. Sukaldean aritzeko bere arteak eta espiritu ekintzaileak aristokratak, enbaxadoreak, toreruak..., mende hasierako *crème de la crème*-ak, bere "Bacalao a la Busturiana" ospetsuagaz gozatzea ekarri eban.

Marcelina Busturian jaio zan 1877an, Mundakan eta Bermeon esnea eta ortuko produktuak saltzen eban zan baserriar familia batean (Etxebarria-tze baserria). Beste hainbat neskato bezala, Marcelina Bilbora joan zan zerbitzatzera, eta han erakutsi eban bere busturiar izaera herriko neska izatea baino gehiago zala. Sukaldaritzan eukon magiak, ikuspegi ekintzaileak, ondo egindako gauzekiko eukan grinak, sukaldaritzako esfera gorenetaraino goratu eban, jaioterria, Busturia, bistatik galdu barik.

*Bacalao a la Busturiana*ren historia gainditze pertsonaleko bizitza bati dago lotuta, eta gisadu onak bezala, su motelean, lehengai onakaz, "prestatzen" joan zan. *"Amama Marcelina Bilbon hasi zan lanean, moilaren jatetxe batean, eta hantxe asmatu eban bere makilao ospetsua. Ugazabandrak jatetxearen izena gisaduari jartze-ko esan eutson, baina berak ezetz esan eban, berak egin ebal eta Bacalao a la Busturiana jarriko eutsola"*, esan deusku Mari Cruz Oñatek, "Cuchu", Marcelinaren birloba izan zan Fernando Romeroren alargunak.

*Bacalao a la Busturiana*ren formula sortu zan jatetxe xumea merkatarien eta marinelen topagunea zan, eta laster jakin eban

gisadu magnetiko hori baloratzen. Erraza da garai hartan Bilboko moilaren zurru-burrua imajinatzea, Marcelinak prestatutako makilao on bat dastatzeko irrikaz portura iristen ziran marinelak. Hain zuzen be, makilaoan aditua zan eta arrain zuri hori inportatzen eban enpresa batean lan egiten eban Secundino Amezua izan zan Marcelinaren bihotza konkistatu eban.

1905. urte inguruan, Bilboko Hernani kaleko "La Busturiana" izeneko jatetxea jarri eban martxan senar-emazteek. Garai hartako prentsak laster emon eban Marcelinaren sukaldaritzako ospearen barri, honela deskribatuz: *"Hona hemen "La Busturiana", urdaileko gaixoei guraria itzultzen deuten sukaldari ospetsua, sendakuntzagatik ordainsaririk jaso barik"*.

Garai hartan Marcelina zan Bilbon makilaoan nagusia. Botxoa "Bacalao a la Busturiana"z oso harro egoan. Izan be, Marcelina garai hartako Bilbon ospe handiko abangoardiako emakumeetako bat zan (*Mujeres de Vanguardia en Bilbao 1800-1936*, liburua).

Jaki gozoak prestatzeko eukan jakintza-*ren booma* oso handia zan. Izan be, "Bilbainako" Elkarte ospetsuko kideek be, garai hartako merkataritza burgesiakoek, makilaoa enkargatzen eutsozan. Marcelina eta Secundino etxex etxeko janariaren

• Marcelinak Busturiaren izena harrotasunez eraman eban, baserritarren alaba xumea izatetik sukaldaritzako enpresaburu distiratsu gisa finkatu zan. Busturiara bueltatzerakoan horrela agertzen zan, distiratsu, “*amama Busturiara kotxez etortzen zanean, herri osoa liluratuta geratzen zan*”.

• Elesgaray-Amezua familiak lotura estua gordetzen dau Busturiagaz, eta gaur egun haren ondorengoek altxorra gordetzen dabe, eskuz idatzitako prentsa, argazki eta errezeten bidez.

benetako aitzindari bihurtu ziran, “*Bilboko jatetxeetara banatzen eben eta makailaoa trenez Donostia, Burgos, Sevilla, Madril eta Parisera be bidaltzen eben. Amama Marcelinaren makailaoa Santanderreko Magdalena Jauregira be iritsi zan. Kazuelak trapuekaz estaltzen ebazan, eta dana garbitu barik itzultzeko eskatzen eban. Bidaian salda galtzen zan ala ez jakiteko egiten eban. Trapua zikinduta etorri ezkerro, saltsa galdu egin zalako zan eta*”, esan deusku Cuchuk, eta atseginez gogoratzen dau bere amaren magia oinordetzan hartu eban bere amaginarreba Maria Amezua Elesgarayk prestatutako “*Bacalao a la Busturiana*” dastatu izana.

Marcelinaren sukaldaritzako oinordetza, bere seme Benitok eta biloba Begoña Amezuak zuzendutako negozio familiarra bihurtu zan. 2001era arte, Hernani kalean bertan makailaoa eta berau prestatzeko behar ziran osagai guztiak saltzen ziran. Marcelinak berak une hartako prentsak kontatzen ebanez, bere gisaduaren sekretua *busilis* preziatua zan, koska dalakoa, esperientzia-urteek eta bakoitzaren sukaldaritzatze-trebetasunek emoten daben misterio gastronomikoa. Inoiz ez eban inolako erreparorik izan bere errezeta partekatzeke, eta gaur geure gastronomiako bitxi hau ez galtzeko ilusioagaz partekatzen dogu be. **UM**

Bacalao a la Busturiana

OSAGAIK (6 pertsonarentzako)

- 6 makailao xerra
- 2 arrautza
- Oilo-salda
- Ogi birrindua
- Perrexila
- Idarrak
- Esparragoak
- Txanpiñoiak
- Berakatzak
- Oliba-olioa

Jarri beratzen 48 ordu eta aldatu 2 aldiz ura. Eskamau xerrak eta kendu hazurrak. Jarri ura berotzen, irakitzen hasi aurretik sutatik atera eta makailaoa bota. Prijitu olioia zartaginean berakatz askogaz, prijituta dagozenezan kendu berakatzak eta utzi hozten olioia, epeldu arte.

Jarri makailaoa kazola batean, azala gorantz jarrita, eta bota olio epela.

Irabiau plater batean, bi arrautza-gorringo, oilo-salda eta 2 koilarakada ogi birrindu.

Behin ondo irabiatutakoan, irazkiatik kazolara pasa, makailaoa olioagaz bertan dogula. Makailaoaren gainean bota perrexil birrindu dezente, jarri sutan eta eragin ondo kazola. Kontu handiz erre ez daiten, erraz erretzen da eta. Apaindu kazola idar, esparrago eta txanpiñoiekaz.

On egin!



Gorostia, pinua, izeia, pazko-lorea eta migura geure etxeetako Gabonetako dekorazio tradizionalen parte dira. Deigarria da miguraren kasua, basa-landare bizkarkoia, hazteko beste landare bat behar dauena eta, halanda be, maitasuna, bakea eta zorionaren sinonimo dana.

MI GU RA ren magia

Intsektuak, txoriak eta haizea dira landare diodiko honen sakabanatzailer nagusiak, sexubakarreko loreak daukez, eta landare maskulinoak eta femeninoak sortzen dabez; beraz, polinizazio gurutzatua behar dau. Miguraren hazi bat zuhaitz batean erortzen danean, batez be konifero, haritz, urki edo sagarrondotan, ernatu eta honen azalean sartzen da bizirik irauteko eta hazteko behar dabezen

ur eta gatz mineralak bertatik hartuz. Tron-goak metro bat artekoak izan daitezke. Urtarrilean eta otsailean polinizazioa gertatzen da, udabarrian landare ongarrituek baia berdeak sortzen dabez, urria eta azaroa aldera heldu eta zuri, zeharrargi eta gelatinoso bihurtzen diranak. Neguan, baia hoiek elikadura-baliabide garrantzitsuak dira txori, eleiztxori, birigarro edota lapurtxori askorentzat. Landarearen hazia baiaren barruan dago, eta txoriek gorotzetatik botatzen dabe hazia. Hoiek substantzia itsaskor batez inguratuta dagoz, horrek zuhaitzari itsasten dauz eta ziklo biologiko barri bat hasten da.

Migura agertzearen ondorioetako bat da kalteak eragin daikenezala parasitatzen dauen zuhaitzean. Arbola horretatik elikatzen da eta, batez be, lehorte garaian ahultzen dau arbola.

Europako, Asiako eta Amerikako eskualde epeletan edo eremu tropikaletan dauko bere jatorria migurak. Mila migura mota baino gehiago dagoz munduan. Garrantzitsua da azpimarratzea txori batzuen elikagai gogokoena dan miguraren fruituek biskotoxina daukeela, gizakiarentzat eta beste animalia batzuentzat oso toxikoa dan substantzia. Halanda be, toxikoa izan arren, antxinako garaietatik, zibilizazio askok sendagai eta magikotzat jotzen dabe. Europako espeziea, *viscum album*, sendagai naturalak, lasaigarriak eta antiespasmotikoak prestatzeko erabili da. Tradizioz, zirkulazino-arazoetan (hipertentsioa batez be), epilepsian, menopausiaren sintometan, erreumatismoetan, afonian, artritisetan eta gaixotasun kroniko edo degeneratiboetan erabili izan dira. Zenbait ikerketek argi uzten dabe immunitate-sistemaren erregulazioa errazten dauela eta minbizizelulen hazkundea galarazten dauela.



MIGURAREN KONDAIRAK

Asko dira landare honi naturaz gaindiko botereak emoten deutoezen istorio eta elezaharrak. Pelikulei esker, tradizioz ezagunena miguraren azpian mosua emotearena da. Antxinaroan, migura eukan arbol baten azpian musukatzeak maitasunak iraun egitea edo maitasuna hastea ekartzen ebala uste zan. Greziarrek ezkontzatan erabiltzen eben migura, ugalkortasunaren sinboloa zalako bere ernalkortasunagatik.

Eskandinaviar mitologian, Odinen semea zan Baldurrei buruzko elezahar bat be badago. Amak, Frigge, maitasunaren eta emankortasunaren jainkosak, lurtean hazten ziran izaki guztiei eskuta eutsen bere semea edozein kaltetatik babesteko. Horrela, Baldur garaiezin bihurtu zan. Bere anaia Loki jeloskorrak, orde, lurraren gainean hazten ez dan migura erabili eban, Baldur hil eban gezia. Bertsio batzuek dinotenez, bere semea hil ondoren, bere ama Frigge atsekabe handiz negar egin eban, eta bere malkoak miguren baia zuri bihurtu ziran. Haren sufrimentua ikustean, gainerako jainkoek Baldur berbiztu eben, eta landarea maitasunaren eta adiskidetasunaren sinbolo izendatu eben.

Bizirik iraun dauen antxinako ohitura bat da migura adarrak batzea lurrera erortzen utzi barik, eta Gabon gauean «zeruaren eta lurraren artean» zintzilikatzea, sa-baian edo ate gainean, etxea sorginkeria negatibo, gaixotasun eta izpien aurka babesteko. Badira errituala konjuru magiko bategaz borobiltzen dabenak be: *"Migura sagratua bedeinkatu nire etxea, kanporatu gaitz guztiak inoiz ez itzultzeko"*. Abenduaren 13an, Santa Luzia egunean, erre egi-ten da pilatutako energia txarrak kentzeko, eta, horren orde, mihiztadura-adar barriak jartzen dira.



Antxinaroan, neguko solstizioari lotutako jaiegunetan erabiltzen zan migura. Abenduaren 25ean IV. mendean Gabonak ofizialki finkatu ziran, Elizak debekatu egin eban migura erabiltzea. XVIII. mendean debekua bertan behera utzi zan eta landare magiko hau Gabonetara itzuli zan.

UM



Ezagutu Gaitegiz Arteaga pausoz pauso



Gabonetan bizitakoa



Busturialdeak altxor bezala gordetzen dauz bere Gabonetako tradizioak, nortasun ezaugarriak, Marijesiak bezala, harrotasunez zaintzen doguzenak. Baina Gabonak bizitzeko eta ulertzeko modua Gabonetako erritu erlijiosoak eta errondak baino haratago doa, iraganari begiratzen deusogunean. Herri ohiturak, etxe bakoitzaren erritualak Gabonetan, geure kultur ondare inmaterialaren funtsezko parte dira.

Busturialdean geure herri askok tradizio eta ohitura herrikoiak berberak daukez, geure adinekoen oroimenean mimos gordetzen diranak. Familiek Gabonetan egiten ebezen erritualen sinbologiak nostalgiaz, xarmaz eta sustraitzez betetako iraganari egindako begirada eskaintzen deusku.

Beste garai batzuetan, familiak Gabon gauean mahaiaren inguruan batzen ziran eta han ez ziran falta Intxaur Saltsa, olio-aza edo sagar konpota. *"Txarriaren guztia be jaten genduan, etxean hiltzen genduelako. Lehen makailaoa pobreena zan, taloa pobreena, indabak pobreenak. Txixarro eta berdela bardin, jaki pobreak. Gaur dana aberatsena da"*, gogoratzen dabe geure nagusiek. Euren testigantzek geure ohituren eta tradizioen garrantzia ulertzen eta baloratzen lagutzen deuskue; izan be, oroimen historiko hori, jazoera edo gertakariez haratago, bizipenez eta oroitzapen gozoez elikatzen da. *"Ogia baserriko laban egiten genduan, eta Gabon gauean ogia hasten zan afarian. Aitak Gurutze Santua eginez bedekinatzen eban, eta lehenengo zatia hurrengo urtera arte gordetzen zan. Hurrengo urtean zati hori osorik egoan, ez eukan urdindurarik. Ogi salataue esaten geuntsozan. Baserriko animalia guztiei amorrotu ez eitezan, eta geuk be zatitxo bana hartzen genduan"*, kontatzen deuskue geure amumek.

Ogiak balio sinbolikoa hartzen eban, ia magikoa, *Ogi Salutadu* edo *Ogi Salutadore*. *Salutadore* edo *salutadu* berba latinezko *salutem* ahotsatik dator, ogi hau osasun-ogitzat edo osasungarritzat jotzean. Erritu hau oraindik be errepikatzen da Busturialdeko etxe askotan, nahiz eta herri batetik bestera aldatzen dan, baita etxe batetik bestera be.

Bermeon kontaktzen ebenez, aitak, afaria hasi aurretik eta amak otoitz egiten eban bitartean, kutxilloaz gurutze bat egiten eban ogiaren zati txigortuan eta kuskurre kendu. Foruko familiek gogoratzen dabe mahaiko buru zan aitak ogia bedeinkatzen ebala eta eskuaz gurutze bat egiten eutso-la, gero ogi zati bat moztu eta mahai-zapiaren azpian jartzen ebala afaria amaitu arte, eta gero etxeko armairu batean gordetzen zala, urte batetik bestera. Beste bertute batzuk be eukazala uste zan, hala nola, itsaso zakarra baretzea, itsasora ogi zatia botaz, ibaia bere ubidean mantentzea, edo ekaitzean airera botaz gero kazkabarrak saihestea.

Baina ogia be Eguberrietako jaki tipikoa zan. *"Sapue be egiten genduan. Ogi zati bat sutan erretzen zan, guztiz erre barik. Ogi txigortu hori pitxerrean jartzen zan, ardo eta azukeragaz goxatzeko. Tapau eta berotu egiten zan. Txanpanik ez egoanez, ogi go-*

Testigantzek geure ohiturak baloratzen laguntzen deuskue; oroimen historiko hori, bizipenez eta oroitzapen gozoez elikatzen da.

zoa jaten genduan, eta ardaoa azukeragaz edaten zan", lbarrangelun gogoratzen dabenez.

Pasadizoak oroitzepenekaz batera datoz, batzuk Elantxobeko herria orain dala 60 urte inguru ezustean izandako edurte handia bezain bitxiak, *"7:30etan edurrik ez egoan eta 8:00etarako dana inkomunikatuta egoan. Agindutako pastelaren bila jendea oinez joaten zan, autorik eta autobusik ez egoalako, eta laprast eginda jendea jausi egiten zan, asko pastel barik geratu ziran"*, barre artean gogoratzen dabenez.

Oparien tradizioak, gaur egun, geure nagusiek imajinatu ezin eben dimentsioa hartu dau, baina magia eta ilusioa gogotsu transmititzen eta bizitzen zan garai latz haietako umeen artean. *"Nik ez dot Olenzero ezagutu, Errege Magoak bai. Halan-da be, bai etorten ziran, baina gure etxera.. halan-holan. Beti oparitzen euskuezan gal-tzerdiak, kulerok... behar genduzan gauzak. Nire etxean, anai-arreba zaharrenek ilusioa sortzen euskuen txikiei, baserriaren aurrean zaldien markak utziz. Eta gero esa-ten euskuen Erregeak zaldiz hurbildu zirala etxeraino"* **UM**

casa de juntas
Gernika
batzarretxea



casa de juntas
Abellaneda
batzarretxea

casa de juntas
Gerediaga
batzarretxea



sede
Bilbao
egoitza

Hurtado de Amezaga, 6
www.jiggbizkaia.eus

Bizkaiko Batzar Nagusiak



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Juntas Generales de Bizkaia



Ez da nahikoa itsaso eskuzabal bat edukitzea, gure abereak gurtzea, ezta lur emankor bat izatea ere. Zerbait gehiago behar da. Horregatik, Euskadin kalitate goreneko 18 produktuek jatorri, zapore eta benekotasun zigilua dute.

No basta con un mar generoso, con rendir culto a nuestro ganado ni con tener un clima fértil para el cultivo. Hace falta algo más. Por eso, en Euskadi los 18 productos de calidad superior tienen un sello de origen, sabor y autenticidad.



Onenetan,
onena.

De lo bueno,
lo mejor.



Euskadi, auzolana, bien común



Bisita gaitzazu!

Arratzu Elkartegia Langunea

Arratzuko erdigunean. Ekintzaileentzako edo enpresentzako gune partekatua.

En el céntrico barrio Loiola de Arratzu. Un espacio de uso compartido para emprendedores y/o empresas.



ARRATZU ELKARTEGIA LANGUNEA

ELKARTEGIAK

Busturialdea-Urdaibain zure proiektua garatzeko eta zeure enpresa sendotzeko behar duzun espazioa. Abantailaz betea.


El espacio que necesitas para desarrollar tu proyecto y consolidar tu empresa en Busturialdea-Urdaibai. Una oportunidad ventajosa y atractiva.

¡Visítanos!

Gernika Elkartegia

Industria-moduluak, bulegoak eta espazio partekatutak dituen enpresa-zentroa, herriko erdigunetik bost minutura, oinez. Ekin hemen zure negozioari, garatu hemen zure proiektua.

Un centro para empresas dotado de módulos industriales, oficinas y espacios compartidos, a cinco minutos, a pie, del centro urbano. Emprende aquí tu negocio, desarrolla aquí tu proyecto.



GERNIKA ELKARTEGIA

Eup!

BIZKAIKO EROSKETEN
WEB ATARIA

PORTAL DE COMPRAS
DE BIZKAIA

www.eup.eus

